

PROBA ESPEZIFIKOA

2018ko PROBA

**ARTEAREN
HISTORIA**

PROBA

ERANTZUNAK





Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea

UNIBERTSITATERA SARTZEKO
PROBAK 25 URTETIK GORAKOAK

PRUEBAS DE ACCESO A LA
UNIVERSIDAD PARA MAYORES
DE 25 AÑOS

2018ko MAIATZA

MAYO 2018

ARTEAREN HISTORIA

HISTORIA DEL ARTE

Azalpenak

Probaren iraupena: ordubete.

Probak bi atal ditu:

1. atala: bi irudi eskaintzen dira, eta haietako bati iruzkina egin behar zaio. Atal honek 10etik 5 puntu balio du.

2. atala: bi gai proposatzen dira, eta haietako bat garatu behar da. Atal honek 10etik 5 puntu balio du.

1. ATALA:

AZTERTU ETA IRUZKINDU BI IRUDI HAUETAKO BAT: (5 PUNTU).

- Sailkatu obra, eta, horretarako, adierazi estiloa eta noizkoa den gutxi gorabehera.
- Egin obraren azterketa formal eta ikonografikoa.
- Aztertu, labur, zer testuinguru historiko eta artistikotan egin zen.

A)





B)



2. ATALA:
GARATU BI GAI HAUETAKO BAT: (5 puntu)

- BIZANTZIAR ARTEA: ARKITEKTURA.
- ERREALISMOA: COUBERT ETA MILLET.



EBAZPENA ARTEAREN HISTORIA (2018ko maiatza)

• KALIFIKATZEKO IRIZPIDEAK

Galdera bakoitzaren ondoren, dagokion puntuazioa ageri da. Guztira, 10 puntu dira.

• EBALUATZEKO IRIZPIDEAK

Irizpide orokorra

Erantzunen zuzentasuna, azalpenaren argitasuna eta kalitatea, egituratzea (batez ere, testu-iruzkinean), lexikoaren kalitatea eta hizkuntzaren zuzentasuna baloratuko dira.

Irizpide espezifikoak

- Artelanak beren testuinguruan analizatu eta interpretatzen ditu, eta zuzen erabiltzen du diziplinaren lexiko espezifikoa.
- Arte-hizkuntza zorrotz interpretatzen du (formak, gaiak eta esanahiak).
- Zenbait tokitako obra adierazgarriak alderatzen ditu, eta haien arteko aldeei, antzekotasunei eta harremanei antzematen die.
- Gaien tratamenduan gertatzen den aldaketa deskribatzen du, bai eta arteari elkartutako erabilera eta funtzio berrien eragina ere.
- Modu egokian garatzen du artearen historiari buruzko gai teoriko bat.

1. ATALA:

A)

Ville Savoye

Le Corbusier, 1929

Familia-txaleta.

Altzairua, hormigoia eta beira.

Estiloa: mugimendu modernoa.

Non: Poissy (Paris).

Ville Savoye etxea Le Corbusierrek "txalet puristak" izendatutako etxeetako azkena da. Arkitektura horrek arkitektura funtzionalistaren idealak irudikatzen



ditu; hau da, formak funtzioari jarraitzen dio beti, eta ez dago tokirik, beraz, apaingarrietarako.

Le Corbusierrek arkitekturaren mugimendu modernoaren oinarritzko printzipio gisa ezarri zituen "bost puntuei" jarraituz eraiki zen Ville Savoye.

1) *Pilotiak*, hots, zutabe edo pilareak izatea, bizitzeko zona altxatzeko eta, hala, azpiko solairuaren parte bat libre uzteko.

2) Teilatu funtzionala; terraza- eta lorategi-funtzioa betetzen du, eraikinaren gainazal guztia aprobetxatzen baitu.

3) Solairu librea; hormek ez dute sostengu-funtziorik.

4) Leiho horizontal jarraituak, argiztapena eta aireztapena emateko.

5) Fatxada askea; azal-funtzioa betetzen du, baina ez da sostengu-egitura.

Ingurunean txertatzearen eta ingurune horretatik bereiztearen arteko tentsio bat lortzen du eraikuntzak.

Batetik, mugari monumental gisa altxatzen da lorategiaren gainean, eta hala formen nola eraikinaren kromatismoaren ezaugarri den araztasunagatik bereizten da hartatik.

Ville Savoye ez da etxe-eraikin huts bat —bizitzeko makina deitzen zion Le Corbusierrek—, arkitektura modernoaren benetako tratatu bat baizik.

Le Corbusierren arkitektura, bere sinpletasun eta araztasunagatik, zuzenean erlazionatuta dago Malevitxen obra suprematistarekin (adibidez, haren hondo zuriaren gaineko *Karratu beltza* obrarekin) edo Piet Mondrianen konposizio neoplastizistekin, lauki perfektu baten presentzia eta kolore primarioen erabilera baitira haien ezaugarriak.

Le Corbusierren eredu funtzionalistaren eragina ezin argiago nabaritu da 1960ko eta 1970eko hamarkadetan modu masiboan ekoizitako arkitekturaren, baina baita beste agerraldi artistiko batzuetan ere, hala nola minimalismoan, zeinak bere egin baitzuen "Less is more" goiburua (gutxiago gehiago da), hala nola Carl Andrearen edo Donald Judden obretan.

B)

Van Eyck

Arnolfini senar-emazteak

1434, ohol gaineko olio-pintura.

Estiloa: gotiko flandriarra.

Eszena kostunbrista edo generokoa.

Van Eyckek bikote bat aurkezten du gela batean. Hondoko hormako ispiluak konposizioaren simetria-ardatza adierazten du, sabaiko lanpararekin eta txakurrarekin lerrokatuta.



Ispiluak ikuslearen kontrako ikuspegitik islatzen du eszena, eta zabaldu egiten du espazio piktorikoa, pintorearen eremua eta haren atzean dauden lekuko hipotetikoena ere hartzen baititu.

Gaiaren eraikuntzak erakusten duen irudia nabarmena da, ez da batere espontaneoa. Efektu hori eragiten du lerroa koloreari nagusitzeak, nabarmendu egiten baititu giza irudien eta objektuen ingeradak, eta gorpuztasun eta solidotasun ia eskultorikoa ematen baitie. Hala, zehaztasun mikroskopikoz ager dezake xehetasunik ñimiñoena ere, luma-muturraz ezarritako oilo-pinturaren teknika erabiliz.

Lehen planoan, gizonaren zapatak ezarri ditu, zur argikoak; emakumearenak, berriz, hondoan daude, gorriak. Diagonalak perspektiba handiagoa sortzen laguntzen du.

Argiak, zehaztasun errealistarekin, emaztea argizatzen du, ilunantzean utzirik oihalaren ezkerrekoa. Hiru orban kromatikok agintzen dute: berdea jantzian, gorria errezeletan eta estalkietan, eta marroia merkatariaren kapan.

Van Eyckek eragin handia izan zuen; haren teknika errealista zaindua eredutzat hartu zuten XV. mendeko bigarren erdiko eta XVI. mendeko flandriar pintore askok. Esan izan da lehen planoko txakurraren irudian eta hondoko ispiluan inspiratu zela Velázquez *Meninak* egiteko.

Giovanni Arnolfini, Brujasen bizi zen italiar merkatari bat, eta Giovanna Cenami ageri dira margolanean.

Gizona, emakumearen eskua hartu eta eskuin-besaurrea altxaturik, ezkonbotoa egiten ari da. Txakurrak fideltasuna adierazten du; ispiluak eta haren ondoko arrosarioak, berriz, Ama Birjinaren garbitasuna.

2. ATALA:

BIZANTZIAR ARTEA: ARKITEKTURA

395. urtean, Teodosio erromatar enperadoreak bitan zatitu zuen inperioa: Mendebaldeko Erromatar Inperioa, hiriburua Ravenan (Italia), eta Ekialdeko Erromatar Inperioa, hiriburua Bizantzion (Konstantino enperadoreak, 330ean, Bizantzio izena kendu eta Konstantinopla izena eman zion hiriari).

Mendebaldeko Erromatar Inperioa pixkanaka deseginez joan zen barbaroen presioaren ondorioz, bere lurraldeen gaineko kontrol eta aginte faltaren ondorioz eta ustelkeriaren ondorioz, eta 476an iraungi zen, ostrogodoek Romulo Augustulo azken enperadorea amildu zutenean. Ekialdeko Erromatar Inperioari ez zioten eragin gertaera horiek, eta ondare klasikoaren gordetzaile



bihurtu zen. Bizantziar Inperioak, gorabehera ugarirekin bazen ere, 1453 arte iraun zuen, otomandarrek Konstantinopla hartu zuten arte.

Arkitektura

Bizantziarrek, erromatar tradizioari jarraituz, basilika-oinplanoa eta oinplano zentrala erabili zituzten elizetan.

Estalkirako, sabai arkitrabetunak erabiltzen hasi ziren, baina gero, pixkanaka, kanoi- eta ertz-gangak erabili zituzten, eta, batez ere, petxina gaineko kupulak. Gero ikusiko dugun bezala, esanahi sinbolikoa eman zieten kupulei.

Eraikuntza-material gisa, erromatar tradizioari jarraituz, adreilua eta harkoskoaren eta zementuaren konbinazioak erabili zituzten.

Hasieran, korintoar kapitela edo kapital konposatuko koloma erabili zen; gero, haren sinplifikazio bat erabili zen, grabatua eta trepanoa baliaturik egina.

Eliza-barneak galanki apaintzen ziren mosaiko, marmol eta freskoz; kanpoaldeak, berriz, apaindu gabe uzten ziren, edo, gehienez ere, luzitu egiten ziren.

Bizantziarrek balio sinbolikoa eman zieten espazio erlijiosoaren parteei, Jerusalem zerutiarra gogora ekartzeko eta eraldaketa espiritualerako tokitzat hartzen baitzituzten:

1. zona: Zorutik arkuen abiabururaino; zokalo molduradun bat da, marmolezko panel koloreaniztunez estalia. Lurtarra denari dagokio.
2. zona: Egitura-elementuek eratzen dute, hala nola kapitelak, arkuarteak eta erlaitzak. Trantsizio-zona bat da.
3. zona: Gangek, kupulek eta absidearen gunek osatzen dute, eta jainkotasuna irudikatzeko erreserbatuta dago. Zerutiarra denari dagokio.

Gainera, ikonostasiak aldarea ezkututzen zuen eliztarren bistatik; hala, handitu egiten zuen liturgiaren misterioa. Hasieran, oihal bat izan zen; geroago, panel-egitura bihurtu zen, zurezkoa gehienetan, eta irudiz apaintzen zen programa ikonografiko zorrotz bati jarraituz.

ERREALISMOA: COUBERT ETA MILLET

XIX. mendeko bigarren herenean Frantziar hasitako mugimendu bat izan zen. Askotariko pintoreak daude sartuta mugimendu horretan; izan ere, Corot den bezalako paisaia-pintore batek eta Courbet den bezalako errealitatearen kronikari batek ez dute zerikusi handirik elkarrekin.

Hala, paisaiaren pintura errealista, Corotek eta Barbizongo eskolako pintoreek osatua, bereiz genezake batetik; bestetik, garaiko gizartearen jokaera, bizi-baldintzak eta moduak zorrozki deskribatzeko interesa duena, Courbet, Millet eta Daumierrek osatua, besteak beste.



Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea

UNIBERTSITATERA SARTZEKO
PROBAK 25 URTETIK GORAKOAK

PRUEBAS DE ACCESO A LA
UNIVERSIDAD PARA MAYORES
DE 25 AÑOS

2018ko MAIATZA

MAYO 2018

ARTEAREN HISTORIA

HISTORIA DEL ARTE

Errealismoak zuzen-zuzenean erreakzionatzen du erromantizismoaren aurka. Mundu exotikoek eta iraganeko garaiek erakartzen zuten erromantizismoaren interesa, eta, gaurkotasuna zuen gairen bat lantzen bazuen, gorespensentimenduak pizteko (*Askatasuna Herriaren gidari*) edo irudikatutako gertaera kritikatzeko zen (*Medusaren baltsa* edo *Kiosko hilketa*), artistaren ikuspegi subjektiboa beti presente zegoela, eta artistak gertaerari buruz zuen iritzia, zituen sentimenduak eta sentsazioak obraren bidez bideratzen ziren ikuslearengana.

Pintore errealistak, berriz, horren aurka borrokatu ziren, eta margolanaren motiborantz begiratu zuten, subjektibitate oro ezabatu nahirik: ikusten zuten bezalaxe margotu zuten, "gai handiak" baztertuta, eta ordura arte irudikatua izateko bezain duintzat hartu ez zen hura irudikatuz. Horren ondorioz, eten bat gertatu zen publikoaren gustuaren eta artistarik aurreratuenek eskaintzen zutenaren artean, eta hori, aurrerantzean, konstante bat izango da.

Burgesiak —jada klase gidari gisa ezarria— zuen gustuak —hobe litzateke "gustu txarra" esatea— arrandia atsegin zuen, neurritz gaindiko apaindura, eta, arteari dagokionez, taxu akademikoko pintura bat, ninfa dantzariak eta beste gai hutsal batzuk protagonista zituena. Beraz, Courbeten margolanei begira, eta berdin Flauberten *Madame Bovary* irakurtzen zuenean, izutu egiten zen burgesia, eta bere burua irainduta sentitzen zuen, obrak horiek, ispilu gisa jokatuta, bera benetan denaren irudi zehatza baina desatsegina itzultzen baitzion.

Courbet da, beharbada, errealista deitura hobekien datorkiona. Ideologiaz sozialista zen, eta Proudhonen eragina izan zuen (erretratua egin zion). Aurrean zuen gizartea begirada hotz eta zehatz batez, erabat naturalista batez, irudikatzen zuen, idealizazioak oro bazterturik, hala harri-pikatzailleak margotzen zituenean, nola emakume gazte burgesak nagikerian lokartuak irudikatzen zituenean, edo bere sorterriko ehorzketa bat deskribatzen zuenean, eta horrek publiko burgesaren arbuio erabatekoa ekarri zion. Haren obrarik ezagunenak hauek dira: *Ornanseko ehorzketa*, *Egun on*, *Courbet jauna*, *Pintorearen estudioa* eta *Harri-pikatzailleak*.

Millet, Parisko girotik ihesi Barbizonen kokatuta, eskola horretako paisaia-pintoreekin harremanetan jarri zen, eta nekazarien bizimodutik jalgi ziren haren margolanen gai nagusiak. Bere garaiko sasoikako nekazari txiroak margotu zituen, haien bizimodu ezin gogorragoak hunkituta, baldintza horiek salatuz, eta, aldi berean, irudikatutakoen duintasuna azpimarratuz, geroago haien espiritualitatearen nolabaiteko idealizaziorantz eboluzionatu bazuen ere.